

Azalpenak: Probaren iraupena: ordubete
Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du)

1. Egin ezazu iruzkin bat aforismo hauen esanahiari buruz:

- “Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”
- “Gerra da gauza guztien aita”

Zer filosofoenak dira? Zer esan nahi dute?

2. Irakur ezazu arretaz zerrendatxoa, eta identifika ezazu zein baieztapen datozen bat sofisten filosofiarekin eta zein, berriz, Sokratesen filosofiarekin; egin ezazu iruzkin bat haien edukiari buruz, eta azter itzazu haien arteko aldeak:

- Ezagutu zeure burua.
- Errealitatea ikusten dena besterik ez da.
- Egia existituko balitz, ezingo genuke ezagutu.

3. Azaldu Aristotelesen baieztapen honen esanahia:

“Bertutea erdibidean dago”.

4. Erantzun San Agustinen pentsamenduari lotutako oinarritzko galdera hauei:

- b) Nola frogatzen du San Agustinek egiaren existentzia?
- b) Non bilatu behar da egia?

5. Identifika ezazu zer ezaugarri dagozkion etika material izenekoari eta zein etika formal kantiarrari:

- A. Autonomoak dira.
- B. Inperatibo hipotetikoak formulatzen dituzte.
- C. Edukia dute.
- D. Inperatibo kategorikoak formulatzen dituzte.
- E. Ez dute edukirik.
- F. Heteronomoak dira

6. Zuzen erlazionatu Marxengan eragina izan zuten autore eta korronteei buruzko bi datu-zutabe hauek:

- | | |
|---------------|------------------------|
| • Saint Simon | Anarkismoa |
| • Feuerbach | Sozialismo utopikoa |
| • Adam Smith | Ezker hegeldarra |
| • Proudhon | Liberalismo ekonomikoa |

7. Azaldu ezazu zer adierazten duten Nietzscheren filosofiako bi termino hauek:

- b) Nihilismoa
- b) Botere-nahia

8. Beheko esapideek Sartreren filosofiari egiten diote erreferentzia. Komentatu zer esan nahi duten.

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da"
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude"